

EDEN

1 ATALA, 1 SASOIA: “PIJA ZIKINA”

egileak

Xabier eta Martin Etxeberria



DRAMATIS PERSONAE
(Agertzen diren hurrenkeran)

JONATHAN

Basoan zehar Laborategitik ihes egin nahian doan mutiko gaztea. Indartsua.

GEXAN

Basoan zehar Laborategitik ihes egin nahian doan beste mutiko gaztea. Ahulagoa.

GUARDA

Bi mutikoen atzetik doazen gizonetako bat, talkiekin eta zakurrekin.

NAROA

Protagonista, 15 urteko neska. Gurasoak banandu eta herri berri batera dator amarekin.

AMAIA

40 urte pasatxoko emakumea, Naroaren ama. Herriko polizia berria.

NARRATZAILEA (JINGKO)

Dena dakiela dirudi: aspaldi gertatu zena, gertatzen ari dena eta baita gertatzeaz dagoena ere.

IRAKASLEA

40 urte inguruko gizonezkoa.

OIER

Naroaren ikaskide berria, bere taldekoa. Freaky bat da, baina karisma du.

IRAIA

Naroaren ikaskide berria, bere taldekoa. Isila da, dislesika eta oso argia.

ELVIN

Naroaren ikaskide berria, bere taldekoa. Costa Ricako jatorria du, naturzalea da.

MAGALI

Naroaren lagun onena bere aurreko herrian. Mezuak bidaltzen dizkio telefonora.

1 ESZENA

KARETA.

JARRAIPEN AHOTSA: Eden. Lehen Sasoia. Lehen Atala: "Pija zikina".

BI MUTIKO KORRIKA BIZIAN DOAZ BASO BATEAN
BARRENA. EUREN ARNASOTS ESTUA ENTZUTEN
DUGU, NEKATUTA DAUDE. BASOKO ADARRAK
PUSKATZEAN ATERATZEN DEN HOTSA ERE
ENTZUTEN DA, JAUZIKA EGITEN DUTE TARTEKA
HALABER. BAT-BATEAN, BIETAKO BATEK
(GEXANEK) ESTROPOZU EGIN ETA ERORI
EGITEN DA. BERE MIN OIHUA ENTZUTEN DUGU
ETA BERE LAGUNA ATZERA BEREGANANTZ
ETORRIZ.

JONATHAN: Gexan! Ondo zaude?

GEXAN: (Arnasestuka) Bai, bai. Adar batekin trabatu naiz, ez dut ikusi... Barkatu.

JONATHAN: Lasai. Jarraitzeko moduan?

GEXAN: Bai edo... Jonathan, atzean utzi ditugula uste duzu?

JONATHAN: Ez dakit. (Hasperen kezkatua). Ez nago ziur. Hobe geratzen ez bagara. Tira, altxa!

JONATHANEK ESKUA EMATEN DIO GEXANI ETA
HAU LURRETIK ALTXATZEN DA. GALTZAK
ASTINTZEN DITU ZIKINA KENTZEKO. ARNASA

SAKON HARTZEN DU, AIREA ANIMALIA BAT
BEZALA USAINDUZ.

GEXAN: (Alaiago) Basoa bukatzen ari da behintzat, ez? Beheko zatira iristen ari garela esango nuke.

JONATHAN: Zuk ere usaindu duzu?

GEXAN: (Berriz airea usainduz) Bai, ibaia norabide horretan dago, ez gaude urruti. Laster libre izango...

GEXAN KOLPERA ISILTZEN DA, EHIZA ZAKUR
HANDI BATZUEN ULUA ENTZUTEN BAITA BAT-
BATEAN. GUARDA BATZUEN AHOTS
DIFUMINATUA ERE BAI, TALKIETATIK HITZ
EGINEZ.

JONATHAN: KAKA! KORRI !!

BI MUTIKOAK KORRIKA BIZIAN HASTEN DIRA
BERRIZ ERE BASOAN BARRENA. ATZETIK
ZAKURREN ZAUNKAK ENTZUTEN DITUGU ORAIN,
GERO ETA GERTUAGO.

GUARDA: (Talkietik hitz egiten) Ikusi ditugu! Bai, bi iheslariak. Ibairantz doaz, moztu bidea!

BI MUTIKOAK KORRIKA BIZIAN. GEXANEK ADAR
BATEKIN ESKUINEKO BESOA KOLPATZEN DU,
MIN OIHUA ENTZUTEN DUGU.

GEXAN: AHH! Nire besoa!

JONATHAN: Ez gelditu Gexan! Uretara iritsi behar dugu!

GEXAN: Bai!

BI MUTIKOAK KORRIKA HASTEN DIRA BERRIZ.

JONATHAN: Animo! Gertu gaude, azken ahalegina!

ZAKURREN ARNASOTSA ETA GUARDEN
OINOTSAK ENTZUTEN DITUGU, TALKIEN
INTERFERENTZIA SOINUA ERE BAI.

GUARDA: (Talkietik hitz egiten) Bizkor!

BI MUTIKOAK KORRIKA. IBAI BATEN SOINUA
ENTZUTEN DUGU BAT-BATEAN.

GEXAN: Hor dago! Ibaia!

JONATHAN: Lortu dugu!

GUARDA: GELDI HOR BIAK!

BI MUTIKOAK KOLPERA GERATZEN DIRA.
TALKIEN SOINUA. ZAKURREN ARNASOTSA.
GUARDA GEHIAGO IRISTEN DIRA, EUREN
PAUSUAK ENTZUTEN DITUGU.

GEXAN: OH EZ!

GUARDA: Tira mutilak, goazen etxera! Etorri astiro-astiro. Ez gaitzazue behartu mina ematera!

JONATHAN: (Haserre, oihuka) Hori ez da gure etxea! Kartzela da! Zatozte ausartzen bazarete! Ikusiko dugu nor ateratzen den minduena.

GEXAN: Jonathan!

JONATHAN: (Baxuago, Gexani) Egin korri uretara Gexan, han ezingo zaituzte harrapatu.

GEXAN: Baina, Jonathan, biok elkarrekin...

JONATHAN: Berehala jarraituko dizut! Hasi korrika, ORAIN!

JONATHANEK GEXAN BULTZATZEN DU, IBAI
ALDERA KORRIKA HASTEN DA HAU. ZAKURREN
ZAUNKAK. JONATHAN ITXURALDATU EGITEN DA
ORDUAN, BASURDE BATEAN BIHURTZEN DA BAT-
BATEAN. BERE KURRINKAK ENTZUN DITZAKEGU
ZAKURREN ETA GUARDEN AURKA KORRIKA
DOAN BITARTEAN.

GUARDA: Kaka! KONTUZ!

BASURDEA ZAKURREN AURKA BORROKAN
ENTZUTEN DUGU. BORROKA BORTITZA DA.

GEXAN: Azkenean!

GEXAN IBAI ERTZERA IRISTEN DA KORRIKA.
URAREN SOINUA GARBI-GARBI ENTZUTEN
DUGU. BASURDEA ETA ZAKURREN BORROKA
URRUTIRAGO.

GUARDA: AKABATU EZAZUE!

BASURDEA ZAKURREN AURKA BORROKAN
ENTZUTEN DUGU. GUARDA ARMA ATERATZEN
GERO. HANDIK GUTXIRA TIRO BAT.

GEXAN: JONATHAN!

GEXAN DAGOEN LEKUTIK BESTE BI TIRO
ENTZUTEN DIRA, ETA BASURDEAREN OINAZE
ORRUA, HILTZEN.

GUARDA: HARRAPATU BESTEA, AZKAR!

BASURDEAREN ARNASOTSA ENTZUTEN DUGU,
AZKENETAN. ZAKURRAK ETA BESTE GUARDA
BATZUK KORRIKA IBAI ALDERA.

GEXAN: Ez, ez, jode!

GEXAN ITXURALDATU EGITEN DA, DORDOKA
BIHURTZEN DA ETA URETAN SARTZEN DA.
URAREN ETA IBAIAREN SOINUA ENTZUTEN
DUGU, KORRONTEAN BEHERA IGERI EGINEZ,
ETA ZAKURREN ETA GUARDEN HOTSA ATZEAN
GERATZEN JOATEN DA, GERO ETA URRUTIAGO.

2 ESZENA

KOTXE BARRUAN, NAROA KOPILOTO DOA ETA
AMA GIDATZEN. EUSKADI IRRATIAREN GOIZEKO
ALBISTE MAGAZINA ENTZUTEN DUGU.

KAZETARIA (OFF): Egun on entzule, gaur eguna albistez kargatua dator,
askorentzat ikasturte hasiera ere markatzen duen iraileko
bigarren astelehen honetan...

NAROA: (Irrati hotsaren gainetik, ahapeka) Ka-ka-za-ha-rra...

AMAIA: (Tonu arinean, trafikoari arreta jarriz pilotuaren lekutik) Zer?
Zerbait esan didazu Naroa? Ez dizut entzun, maitea;
kontzentratua nindoan gidatzen...

NAROA: (Lehor) Ez. Zero. Ezer ez.

AMAIA: Zer? Urduri?

NAROA: Ez.

NAROAK BERE SAKELEKO TELEFONOAREN
AURIKULARRAK JARTZEN DITU. "KAINAKAI"
TALDEAREN "KOLPE" ABESTIA ENTZUTEN DA:
"Hau da jokoa / Honarte nahikoa / Kalea zai dut
badakit / Nahi dudana jantzi gaur lagunok hautsi behar
dugu gaua erditik / Aizu gaur ez dut nahi negarrik / Ez
lerdo bat ohean sartuta / Perreoa nahi dut hasi eta
buka / Nire ahizpekin bakarrik / Kolpe eta kolpe
bakoitzak tope / Gasteizen izarrek diote / Erre ezazu
zerua / Ae-ae-ae..."

- AMAIA: (Zakar, tonua altxatuz, Naroari aurikular bat belarritik indarrez kenduz) Naroa! NAROA!!
- NAROA: (Haserre) Joderrr! Ama! Ez kendu aurikularrak horrela! Mina eman didazu!!!
- AMAIA: (Haserre baita) Zurekin ari nintzen eta zuk kasu piperrik ere ez!! Zer egin behar dut, e? Beti hor entxufatuta! Bakar-bakarrik aritu naiz hizketan inozo bat bezala!!
- NAROA: (Errabiaz) Eta zer nahi duzu erantzutea, ama!? Orain arteko guztia ere bakarrik egin duzu, ezta?
- AMAIA: (Defentsiban) Hori ez da horrela Naroa...
- NAROA: Ez!? Nik erabaki nuen aita utzi, nire lagun guztiei agur esan eta kristo-puntako herri kaxkar batera bizitzera etortzea, edo zer?
- AMAIA: (Ilun) Bizitza berri bat da, Naroa, eta kosta egingo zaizu, badakit, bioi kostatuko zaigu, baina...
- NAROA: (Etenez) Zuk erabaki zenuen! Bakarrik! Zuk eta zure bikote berriak!!

AMAIA: (Serio baina bare) Bai. Hala da... (isilune laburra, hasperenaz) Baina ondo egongo gara. Hitza ematen dizut...

NAROA: (Zakar, berriz aurikularrak jarriz) Kaka!!

“KAINAKAI” TALDEAREN “KOLPE” ABESTIA

ENTZUTEN DA: “Ez ezezez gaur ez goaz hemendik hieska / Ez ezezez hau barkatu ez da zure festa / Ez nago jasateko prest / Ardiz jantzitako otso bat zara eta ez dizut sinisten”

NAROA: (OFF ahotsa) Hau dena kakazahar bat da.

3 ESZENA

TXORI BATZUEN TXIOA ZUHAITZEN ARTEAN,
ERREKA BATEN SOINUA, LORATEGI
PARADISIAKO BATEAN.

NARRATZAILEA: Dena zoragarria zen, hasieran. Animalia, landare eta izaki bizidun guztiek bizileku bera partekatzen zuten, oparotasun ikaragarritzko leku bat, era guztietako zuhaitz ederrez estalia. Fruitu ugari zeuden, ura, babesak, eta bizidun guztiek behar zuten bezainbeste jasotzen zuten. Paradisu hark izana zuen, baina ez zuen izenik, beharrezkoa ez zelako. Lore bati lurrina isurtzea bezain alferrikakoa. Txori bati hitz egiten irakastea bezain hutsala.

LEHENGO TXORIEK TXIOKA JARRAITZEN DUTE,
BAINA BAT-BATEAN OINOTSAK ENTZUTEN DIRA.

OSTOAK ZAPALTZEN DATORREN PERTSONA
BAT, ETA TXORIEK IZUTUTA ALDE EGITEN DUTE.

NARRATZAILEA: Baina orduan, pertsonak azaldu ziren. Eta denona zen leku eder eta harrigarri hura, soilik beraientzat egina zela pentsatu zuten, soilik beraiena zela. Eta, horregatik, mugatu egin zuten, zatitu, hesitu, lau hormen artean sartu zuten. Hori esan nahi baitu paradisu hitzak, "ormen artean dagoena". Eta paradisu hari EDEN izena ipini zioten.

ZUHAITZAK AIZKORAZ MOZTEAREN SOINUA
ENTZUTEN DA, ETA GERO ZUHAITZA LURRERA
AMILTZEN ENTZUTEN DUGU.

NARRATZAILEA: Baina, esaidazu, nola izan liteke paradisua mutilatua dagoen zerbait?

HILTZEN ARI DIREN TXERRI BATEN KURRINKA
BIZIA.

NARRATZAILEA: Nola uste lezake inork, kaiolan sarturiko txoriak basoan dabilenak bezain ondo abestuko duenik? Lurrez aldaturiko lore batek bere kasa jaiotakoak baino usain hobea izango duenik?

HAIZEA ZUHAITZEN ADARRAK MUGITUZ. ERREKA
BATEN SOINUA APAL. EURIA. TRUMOI SOINUA
URRUTIAN.

NARRATZAILEA: EDEN zatitu zuten, ebaki, hustu, hesitu. Baina nola uste lezake inork, naturak eboluzionatuko ez duenik, urak bere

bidea topatuko ez duenik? Denborarekin, zuhaitzek ormen
azpitik sustraiak luzatu eta hesi guztiakbotako ez dituztenik?

EURIA INDARTU EGITEN DA, ZAPARRADA DA
ORAIN. TRUMOIA BETE-BETEAN.

4 ESZENA

ZARATA. IKASLEAK GELA BARRUAN, KLASEA
HASI AURRETIK: BERRIKETAK, BARREAK,
AULKIEK MUGITZEAN EGITEN DUTEN HOTSA.
BAT-BATEAN TXIRRINA ENTZUTEN DA.
IRAKASLEA SARTZEN DA GELARA.

IRAKASLEA: Egun on denoi! Tira! Eseri zuen lekuetan!

ATEA ITXI EGITEN DU. KANPOKO ZARATA
GUTXITZEN DA, TXIRRINA GERATU EGITEN DA.
IKASLEAK AULKIETAN ESERTZEN SOINUA.

IRAKASLEA: Egun on! Zer moduzkoak izan dira zuen oporrak?

OIER: Laburrak!

BARREAK. IRAKASLEAK ERE BAI.

IRAKASLE: Bai Oier, denontzat! Baina tira, poliki-poliki emango diogu
hasiera ikasturteari. Egoera kontutan hartuta, ahalik eta
arreta gehiena ipini beharko diogu higieneari eta osasunari,
bai?

MARMARRAK.

IRAKASLEA: Oraintxe azalduko dizkizuet goitik pasa dizkiguten arauak...
Baina lehendabizi, aurkezpenak. Ikaskide berri bat izango
duzue aurten.

MARMARRAK BERRIZ.

IRAKASLEA: Naroa izena du, eta herrira etorri berria da. Zure lagun berriei
zerbait esan nahi diezu Naroa?

MARMARRAK AREAGOTZEN DIRA. BATZUK
IXILTZEKO SOINUA ERE EGITEN DUTE, SHHH!.

NAROA: Humm... Ez. Ez dakit. (BARRE URDURIA) Egun on.

ISILTASUNA BESTE IKASKIDEEN ALDETIK.
BARRETXO BAT, EZTUL SOLTE BAT.

IRAKASLEA: Zer? Ez al diozue erantzun behar edo zer arraio!

“EGUN ON!” KOMUNITARIO BAT ENTZUTEN DA
ORDUAN, GUZTIEK EZ DUTE ERANTZUTEN
ORDEA.

OIER: GOOD MORNING!

BARREAK ERE ENTZUTEN DIRA, “GOOD
MORNING” GEHIAGO, GRAZIA ERREPIKATUZ
DOAN JENDEAK ESANA.

IRAKASLEA: Tira, aski da, aski da! (ISILTZEN JOATEN DIRA) Naroa,
eseri hor, eskuineko mahai hori izango da zurea. Oier, Elvin
eta Iraia! Naroa zuen taldean egongo da lehen hiruhilekoan.

NAROAREKIN GOAZ, MOTXILA MAHAI GAINEAN
UTZI ETA AULKIAN ESERTZEN DA. IRAIA, ELVIN

ETA OIER DITU INGURUKO MAHAJETAN. AZKEN
HONEK ERDI AHAPEKA HITZ EGITEN DIO.

- OIER: Good morning again!
- NAROA: Yeah, thanks, same to you! How are you doing?
- OIER: Eeee... good, good.
- ELVIN: (BARREZ) Ja, ja! Hik baino hobeto egiten dik Oier!
- OIER: Isilik egon hadi Elvin!
- IRAKASLEA: ISILIK ZUEK!
- IRAIA: (AHAPEKA NAROARI) Kaixo! Egun on!
- IRAKASLEA: IRAIA! ISILTZEKO! Izango duzue elkar ezagutzeko denbora beranduago.
- IRAIA: Bai.
- IRAKASLEA: Ea ba... Osasun kontuekin hasi aurretik, ohiko-betiko-jada-buruz-jakin-behar-zenituzketen arauak: BAT! Telefonoak debekatuta daude ikastetxean. BI! Puntueltasuna...

5 ESZENA

IKASTOLAREN PATIOA. IKASLEEN ZARATA
ELKARREKIN HITZ EGITEN, BARREZ, BALOI
SOINUA...

- NAROA: (Bazter batean eserita, sakelakoan whatsapppeko audio-mezua grabatzen) Kaixo kuadri! Naroa naiz, infernutik mezu bat grabatzen. (Audioa bidaltzearen "plink!" hotsa)
- NAROA: Hiru ordu pasa dira eta bizirik nago oraingoz!

NAROA: Jolastordua... Imajinatu zenbat gogo dudan jolasteko...
NAROA: Jo, neskak, pila pila botatzen zaituztet faltan!
NAROA: Hori bai, telefonoarekin harrapatzen banaute...

ELVIN HURBILTZEN ETA NAROA BERE
TELEFONOA PRESAKA EZKUTATZEN

ELVIN: Naroa, bakarrik zaude? Nahi duzu gurekin etorri?
NAROA: Eee..., ez, ez. Eskerrik asko Elvin, ondo nago.
ELVIN: Benetan?
NAROA: Bai, bai. Benetan. Eskerrik asko berriz.
ELVIN: Bale. Nahi duzuna. Gero arte!

ELVIN URRUNTZEN

NAROA: (Bere buruarekin) Puff! Ia-ia! Agian beste leku batean jartzea hobe.

NAROA ZUTITU ETA PATIO BAZTERRETIK
MUGITZEN DA. IZKIN BATEAN, OIER ETA BERE
LAGUNAK ENTZUTEN DITU, NAHIZ ETA HAI EK EZ
DUTEN BERA IKUSTEN.

MUTILA 1: Zer iruditu neska berria, Oier? Ez dago txartxoia, e?
OIER: (Ahul) Berria? Beno..., besterik gabe. Tente samarra.

MUTILA 2: (Isekan) Zer esan nahi duzu? Tente samarra jarri dizula?

MUTILEN ALGARA OZEN ETA BALDARRAK.

MUTILA 1: Bai, bai! Begirik ez dio gainetik kendu behintzat, e?

OIER: (Urduri eta haserre) Zer esaten ari zarete? Bai zera!

MUTILA 2: Zer esan nahi zenuen orduan ba?

OIER: (Haserre, ahotsa goratuz) Pija zikin bat dela, joder! Nola esan behar dut?

OIER ETA LAGUNAK BARREZ ETA NAROA
URRUNTZEN

NAROA: (Amorruz, bere buruarentzat) Baboak!!!

TELEFONOAREN "PLINK!" HOTSAK. NAROA
BAZTER BATEAN ESERTZEN DA MEZUAK
ENTZUTEKO.

MAGALI (ETA GEHIAGO):(Whatsapp grabazioa) Maite zaitugu, Naro!!!

NAROA: (Triste eta leun) Nik ere bai zuek, kuadri!

NAROA: (Hasperena) Eskerrak hor zaudeten... Hau kristoren gogorra da, benetan.

NAROA: (Ilunago) Gainera, hiru frikiren aldamenean jarri naute...

NAROA: Bat, Elvin, sudaka erdi-autista bat da.

NAROA: Bestea, Iraia, yonkie itxurako gotika bat.

NAROA: Eta okerrena, Oier izeneko bat. (Amorruz) Txinotan erositako txulomari merke bat.

JOLASTORDU AMAIERA ADIERAZTEN DUEN
TXIRRINA, OZEN. IKASLEEN MUGIMENDUA ETA
HOTSAK ENTZUTEN DIRA.

NAROA: Joder! Joan egin behar dut! (Berriz grabatzen) Banoa neskak! Ea eguna azkar amaitzen den! Gero gauean txatean, oki? MUXXXXXX!!!!

6 ESZENA

NAROA, IKASTETXEKO ESKILARA ETA
PASILLOETATIK KORRIKA, BAKARRIK.

NAROA: Kaka! Non dago jendea ordea? (Arnasestuka) Zergatik dira denak hemen hain puntualak?

NAROA, IKASGELAKO ATEA IREKITZEN KOLPERA.

IRAKASLEA: (Zorrotz) Naroa! Berandu zatoz!

NAROA: (Arnasestuka) Bai... Barkatu...

IRAKASLEA: Esan dizut lehen: hemen arauak bete egin behar dira. Puntueltasuna...

NAROAREN TELEFONOAK “PLINK!” SOINUAK
ATERATZEN DITU BAT-BATEAN

- IRAKASLEA: (Ahotsa goratuz) Eta telefonorik ez!!!
- NAROA: Ez... Nik...
- IRAKASLEA: (Zutitu eta Naroarengana hurbilduz) Zer uste duzu? Ergela naizela? Eman berehala!!!

NAROA BERE TELEFONOA POLIKI EMANEZ ETA
IKASLEEN ALGARA ETA ZARATA

- IRAKASLEA: Eta itzaldu egingo dut gainera!! (Zalantzakor) Nola funtzionatzen du honek? Botoi hau?
- NAROA: (Izu puntuaz) Ez!! Horrela ez!

AURREZ GRABATUTAKO MEZUAK ENTZUTEN
DIRA ETA BAT-BATEAN ISILTASUNA EGITEN DA
IKASGELAN: “Gainera, hiru frikiren aldamenean jarri
naute. / Bat, Elvin, sudaka erdi-autista bat da. /
Bestea, Iraia, yonkie itxurako gotika bat. / Eta
okerrena, Oier izeneko bat. Txinotan erositako
txulomari merke bat.”

- IRAKASLEA: (Hileta doinuz) Oso polita, Naroa. Oso polita...

AZKEN MEZUA: “Banoa neskak! Ea eguna azkar
amaitzen den! Gero gauean txatean, oki?
MUXXXXXX!!!!

OIER: (Garrasika) Mux zuri ere Naroa!!! (Ikasleen algarak) Esan
nizuen pija bat zela!!!

IKASLEEN ALGARAK "MUXXX" OIHUKATUZ

NAROA: (Bere buruarentzat) Joder.... Hau KAKAZAHAR bat da!!!